## GAURKO FILMEAK

# Zurrutero santuaren mistika

ANDRES GOSTIN

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 09:00 | C+(f) | ○○ | SEPT HOMMES ET UNE GARCE | 1966 | Bernard Borderie | 90 m |
| 11:00 | T5 | ○ | LA CESTA | 1964 | Rafael J.Salvia | 80 m |
| 14:00 | M6 | ○○ | SURCOUF,LE TIGRE DES SEPT MERS | 1965 | S.Bergonzolli | 95 m |
| 15:30 | A3 | ○ | LLAMADME TRINIDAD | 1971 | F.L.Morris | 85 m |
| 16:30 | TVE2 | ○○○ | TODOS ERAN MIS HIJOS | 1948 | Irving Reis | 91 m |
| 21:00 | C+(f) | ○ | J'AI EPOUSE UNE EXTRA-TERRESTRE | 1988 | Richard Benjamin | 105 m |
| 21:30 | ETB1 | ○○ | ZURE TXARTELA EZ DA LUZARORAKO | 1979 | George Kaczender | 91 m |
| 22:00 | C+(e) | ○○○○ | LA LEYENDA DEL SANTO BEBEDOR | 1988 | Ermanno Olmi | 128 m |
| 22:00 | T5 | ○ | TIBURON 3 | 1983 | Joe Alves | 94 m |
| 22:00 | A3 | ○○ | ACCION EN EL ATLANTICO NORTE | 1943 | Lloyd Bacon | 110 m |
| 00:30 | TVE2 | ○○ | NO TOQUEN A LA NENA | 1973 | Juan Jose Jusid | 97 m |

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

Ermanno Olmi gaur egungo zinegile bitxiena da. Bergamon jaioa, Lombardiako lurraldean, Lombardiako dialektoan eta Lombardiako aktore afizionatuekin errodatu ditu filme guztiak: 'Il impiegato' eta 'Eskalapoien arbola', besteak beste. Autore zinemaren esponente nagusiena izanik, zuzendaritza, argazkia, gidoia, muntaia, eta errealizazio prozesu osoa bideratu eta kontrolatzen ditu Olmik. Eskualdeko baserritarrak erabili zituen aktore modura 'Eskalapoien arbola' burutzeko, eta Canneseko Zinemaldiak Urrezko Palma eskaini zion mende hasierako nekazal gizartearen fresko dramatiko honi. Urte batzuk beranduago, Lombardia estraineko aldiz utzi eta Parisera abiatu zen Joseph Rothen 'La leyenda del santo bebedor' nobela laburra filmatzeko. Berak idatzi ez zuen ideia eta gidoi batean oinarritu zen lehenengoz, eta aurreneko aldiz ere, aktore profesionala kontratatu zuen: Rutger Hauer. Osagarriak aldatu arren, zinea egiteko era berezi horri eutsi zion, eta behartsu alkoholiko bati berrehun franko emango dizkion gizon/aingeruaren parabola erabiliz, adiskidetasuna, maitasuna eta alkoholaren azpimundua errodatuko ditu, poesia eta mistika nahastuz beti ere. Protagonistaren damua salbazioaren aurrean, berrehun frankoak itzuli behar dituen orduan batipat, patetikoa da. Canal Plus katea izanez gero, ikusi arren.

### LA CESTA

**1964, 80'**
**Zuzendaria:** Rafael J. Salvia. **Aktoreak:** Antonio Garisa, Ana Esmeralda.
**T-5, 11.00etan**

Españolito medioaren beste komediatxo bat. Oraingo kasuan, Antonio Garisak beteko du garai batean Alfredo Landak betetzen zuen papera, produktu hauen zaleen kalterako. Eguberriek loteriaren sari nagusia eramango dute San Roque herrira, eta hortik aurrera, hamaika komeri gertatuko da herritar eta auzokideen artean. Sasoi hartako nostalgikoentzat.

### SURCOUF, LE TIGRE DES SEPT MERS

**1965, 95'**
**Zuzendaria:** Sergio Bergonzelli. **Aktoreak:** Gérard Barray.
**M-6, 14.00etan**

Itsasoko generoak eman dituen produktuetako bat. Historia, XVIII mendean dago kokatua, Mauritius Irlaren inguruan. Korsario bat altxorraren bila abiatuko da bere maitalearen zerbitzuak lortzeko. Sergio Bergonzellik kronika historiko nahiko zehatza burutu zuen, eta itsasoko borroka eszenak errodatzeko daukan gaitasuna erakutsi. Filmea, halere, motz geratuko da, gidoia sinplea izateaz gain, konbentzionalegia bait da.

### TODOS ERAN MIS HIJOS

**(All my sons)**
**1948, 91'**
**Zuzendaria:** Irving Reis.
**Aktoreak:** Edward G. Robinson, Burt Lancaster.
**TVE-2, 16.30etan**

Arthur Millerren obran oinarritu eta aktore plantel ona erabili arren, Irving Reisek melodrama familiar tipikoa errodatu zuen. Drama gogorra errodatzeko moduko alizienteak eskaintzen zituen Millerren testuak, baina Reisek akats batzuk egin zituen. Lehenik, tauletako kutsua gainetik kendu ezinean ibili zen, eta filmea baino, antzerki errodatua dirudi lanak. Eta bigarrengoz, ez zuen jatorrizko testuaren moldaketa egokia prestatu, idazlearen ikuspuntu dramatikoa baztertuz. Nolanahi ere, heroe izatetik kasik kriminal bihurtuko den pertsonaiaren egoerak badu merituirik zenbait zatitan. Gerra garaian honek egin zituen hegazkinak akatsez beteta zeudela ohartuko da semea, eta hemendik aurrera, historia melodrama astun batera mugatuko da.

### ZURE TXARTELA EZ DA LUZARORAKO

**(Your ticket is no longer valid)**
**1979, 90'**
**Zuzendaria:** George Kaczender. **Aktoreak:** Richard Harris, George Peppard.
**ETB-1, 21.30etan**

Historiaren arrankea oso ona da: gizon aberats bat larrialdi ekonomiko gogorra ari da jasaten, urtetan eraikitako finantzal industria gainbeheran bait dator. Egoeraren aurrean, tajuz eta duintasunez bukatu nahi izango du bizimodua eta gizon aberatsen kapritxoak asetzen dituen putetxe canadiar batera joango da. Elementu hauek nolabait lotuz, aktore nagusiak nozitzen duen inpotentzia ekonomikoaren eta sexualaren arteko konparazioa adierazi nahi zuen George Kaczenderrek, baina azken emaitza erdipurdiko komedia batera mugatu zen, filmeari gehiegi eskatu izango balio legez.

### TIBURON 3

**(Jaws 3-D)**
**1983, 94'**
**Zuzendaria:** Joe Alves.
**Aktoreak:** Dennis Quaid, Bess Armstrong.
**T-5, 22.00etan**

Steven Spielbergek sortu zuen marrazoaren hirugarren kapitulua. Filmearen kalitatea usteldu egin zen urtetik urtera, eta gaurkoa atzokoa baino txarragoa da, atzokoa lehenaren hanka orpora iristen ez zen bezala. Dennis Quaidek bete zuen gainera Roy Scheiderrek utzitako protagonismoa, eta batek ezin du gehiegi agoantatu Quaiden ustezko «talentua».

ETB2

HISTORIAS DE HOLLYWOOD
Telesaila
19:20

A3

EMPEZAR DE NUEVO
Azken kapituloa
21:30

FR3

FAUT PAS REVER
Magazina
22:40

TVE1

LA HUELLA DEL CRIMEN
"Las envenenadas de Valencia"
23:00

**LA CINQ 5**

06.00: **Le journal permanent.** 07.15: **Demain se décide aujourd'hui.** 07.20: **Youpi!.** 10.00: **Baloon's circus.** 10.30: **Cas de divorce.** 10.55: **Ça vous regarde.** 11.55: **Que le meilleur gagne.** 12.40: **Météo.** 12.45: **Le journal.** 13.30: **Arabesque.** 14.25: **L'inspecteur Derrick.** 15.25: **Soko, brigade des stups.** 16.25: **Youpi, l'école est finie!.** 17.10: **Babylone.** 17.45: **Star trek.** 18.35: **Allo, Nelly Bobo.** 19.00: **La ligne de chance.** 19.40: **Bonsoir ma série.** 20.00: **Le journal.** 20.40: **Journal des courses.** 20.50: **Ne m'appelez pas docteur.** 00.00: **Le minuit pile.** 00.10: **Demain se décide aujourd'hui.** 00.15: **Le club du tété achat. 00.35: Cas de divorce.** 01.05: **Voisin voisine.** 02.05: **Tendresse et passions.** 02.40: **Voisin voisine.** 03.40: **Tendresse et passions.** 04.05: **Voisin voisine.** 05.05: **Tendresse et passion.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 07.00: **M6 Express.** 07.05: **Contac 6 «Manager».** 08.05: **M6 Boutique.** 11.05: **Aventures dans les îles.** 11.50: **Hit Hit Hit Hourra.** 12.05: **Papa Shultz.** 12.30: **Ma sorciere bien-aimée.** 13.00: **Aline et Cathy.** 13.25: **Madame est servie.** 14.00: **«Surcouf, le tigre des sept mers».** 15.40: **Quizz coeur.** 16.15: **Drôles de dames.** 17.05: **Hit Hit Hit Hourra.** 18.05: **Supercopter.** 19.00: **La petite maison dans la prairie.** 19.54: **M6 infos.** 20.00: **Madame est servie.** 20.35: **La naissance du faucon.** 22.15: **Equalizer.** 23.05: **60 minutes.** 00.00: **6 Minutes.** 00.05: **Dazibao.** 02.00: **Le Zaïre.** 02.50: **Carnaval a branquilla.** 03.45: **Le Sahël.** 04.35: **Jean Guidoni en concert.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.25: **Canaille peluche.** 07.45: **Ça cartoon.** 08.05: **Les superstars du catch.** 09.00: **«Sept hommes et une garce».** 10.30: **Flash info.** 10.35: **Les chevaux de l'île de sable.** 10.55: **«Pacific palisades».** 12.30: **La grande famille.** 13.30: **Nick Mancuso.** 15.35: **L'amour maudit de leisenbohg.** 17.10: **Les nuls... l'émission.** 18.00: **Canaille peluche.** 18.30: **Ça cartoon.** 18.50: **Top albums.** 19.20: **Nulle part ailleurs.** 20.30: **Cinéma dans les salles.** 21.00: **«J'ai épousé une extra-terrestre».** 22.50: **«Derniere sortie pour Brooklyn».** 00.30: **«Eden miseria».** 02.10: **La saga du parrain par Coppola.** 03.00: **Amaiera.**

**A3**

08.00: **Noticias.** 08.05: **La guarderia.** 09.30: **Noticias de la economía.** 09.45: **De Tu a Tu.** 09.45: **Café con...** 10.15. **Silencio, acción.** 10.30: **Pasarela.** 11.12: **Noticias.** 11.30: **La salud es lo que importa.** 12.00: **Tú Tuá.** 12.30. **Candilejas.** 13.00. **Pasionaria.** 13.50: **Noticias.** 14.00: **Los segundos cuentan.** 14.30: **Embrujada.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **«Llamadme Trinidad».** 17.10: **Teletienda.** 17.20: **Noticias.** 17.23: **La merienda.** 18.50: **Teletienda.** 19.00: **El hombre de los seis millones.** 20.00: **La ruleta de la fortuna.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **Chicas con clase.** 21.30: **Empezar de nuevo.** 22.00. **Noticias.** 22.01: **Hazañas bélicas.** 00.00: **Noticias.** 00.15: **La casa del terror.** 01.00: **Hospital general.** 01.45: **La intrusa.** 02.30: **Amaiera.**

**CANAL+**

08.00: **Noticias.** 08.10: **ABC world news.** 08.35: **Los 40 principales.** 09.30: **El show de Betty White.** 10.00: **«La última tentación de Cristo».** 12.41: **Documental.** 13.33: **Los 40 principales.** 14.00: **Dibujos animados.** 14.25: **Noticias.** 14.30: **«El declive del imperio americano».** 16.05. **Piezas Canal+.** 16.28. **«Una nueva vida».** 18.10: **«Johnny superstar».** 19.35: **Tiny Toons.** 20.00: **Avance redacción.** 20.05: **Laaldea del Arce.** 20.30: **Los 40 principales.** 21.00: **Padres forzosos. Telesaila.** 21.30: **Noticias.** 22.00: **«La leyenda del santo bebedor» Filmea.** 00.01: **«Arde Mississippi». Filmea.** 01.47: **«¿Puede prestarnos a su marido?».** 03.30: **Amaiera.**

**TELE 5**

08.00: **Dibujos animados.** 09.00: **Enamorarse.** 09.45: **VIP guay.** 10.15: **Topaccio.** 11.00: **«La cesta».** 12.45: **La revancha.** 13.30: **Tao-Tao.** 14.00: **Entre platos anda el juego.** 14.40: **Señora.** 15.30: **La romana.** 16.30: **Hotel.** 17.30: **Super guay.** 19.10: **Vip guay.** 19.40: **Topaccio.** 20.30: **Campeones.** 20.55: **Hoy.** 21.00: **Telecupon.** 21.15: **Su media naranja. Lehiaketa.** 22.00: **«Tiburón 3».** 23.50: **Entre hoy y mañana.** 00.20: **Pressing futbol.** 02.05: **Amaiera.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | RNE-Lau Irratia. | FM 92.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Gipuzkoa Herri Irr. | FM 99.8 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |

**Irulegi Irratia.** Goizeko 10,30etan haurren emanaldia, Bankako eskolako umeekin. Arratsaldeko 7,30etan 'Sozial emankizuna', Baigorriko zahar etxeaz.

**Gure Irratia.** 19.15etan 'Zirrita zilotik' saioa eta ondoren 'Soinu eta solas' denborapasa irratsaioa.

**Egin Irratia.** 'Kale gorrian' magazinean, asteazkeneroko 'Bizitzaren eskola' atala izango da, pedagogia eta eskolako gaietaz. Edorta Jimenez, idazlearen kolaborazioa ere izango da.

**Euskadi Irratia.** 'Iturri onetik' saioan, Ane Albisuk eginiko erreportaia eskainiko da Arrantzaleen Emazteen III topaketetaz. Topaketa hauek Trintxerpen ospatu ziren martxoaren 23-24ean eta Galizia, Euskal Herria eta Frantziako arrantzaleen emakumeak bildu ziren beren arazoak aztertzeko asmoz.

**Gipuzkoako Herri Irratia.** 'Herri plaza' goiz saioan, osasun gaiak ukituko dira Artetxe medikuarekin goizeko 11k aldera.

**Segura Irratia.** Goiz guztian zehar Ordiziako azokako albisteak emango dira. 12.15etan 'Entzun-erantzun' lehiaketa eta 14.30etan 'Bazkalondoko kuluxka' musika saio lasaia.